



**B**izkaian XIII.-XVIII. mendeetan burdinola hidraulikoak asko garatu ziren. Horretarako hainbat arrazoi zeuden: burdin mea ugari eta kalitate handikoa, basoetan egur ikatza egiteko egur asko, eta hauspoei eta gabiei eragiteko gurpil hidraulikoak mugitzeko ur korrante asko. Burdinola horietan hainbat tresna egiten ziren (armak, baserriko lanabesak, burdinkiak, iltzeak, aingurak...), eta horietako batzuk atzerrira ere bidaltzen ziren.

Barbadun ibaiaren ertzetan horrelako zenbait burdingintza eraikuntza zahar eraiki ziren. Horietao batzuk desagertu egin dira (Bilotxi, Santelices...) edo aztarnak besterik ez dira geratzen, esaterako, La Olla edo Valdivian (Galdames). Zorionez, ordea, badira oraindik zutik dauden batzuk ere. Muskizeko El Pobal (Olaundia edo Olazarra) Bizkaian hobekien zaindutako burdinola da (egun zaharberritzen ari dira). XIX. mendearen erdi alderako Euskal Herriko burdinola gehienak itxi egin ziren, baina El Pobalek XX. mendearen erdi aldera arte jarraitu zuen jarduera.

Burdinola hori Sorginleku izeneko inguruan dago, eta Lamiozingoerreka (lamien zingiraren erreka) igarotzen da bertatik. El Pobal izena inguruko zurzurietatik (gazteleraiz pobo) dator. Lehen adierazi bezala Olaundia edo Olazarra izenez ere ezaguna da. Burdinola horren ondoan Quadra leinuaren dorretxea eta zubi bat daude, seguraski erromanikoa. Hori dela eta, Enkarterrietako arkitektura multzorik esanguratsuenetakoa da.

Halaber, Las Cortes (Abando) gunearen balio historikoa azpimarratu behar da. Gune hori El Pobalekin lotzen da zubiaren bidez, eta leku estrategikoan dago, izan ere hortik Barbadun ibaiaren ibar osoa begitan hartzen baita.

## IBILBIDEA

Ingurumen Interpretazioko Zentroaren aparkalekutik gorantz abiatzen den bidea hartuko dugu "Peñas Negras" harkaitz eraketaraino. Hortik eskuinetara joko dugu Alta Galdameseko hegitik (El Cuadro); (Ibilbidearen hasiera 3. eta 4. ibilbideen berdina da).

**25 minututan** gorantz ibili ondoren, mendi lepo batera **1** iritsiko gara. Mendi lepoan bidea bitan banatzen da, eta guk eskuineko bidea hartuko dugu, altzifre eta pinu basotxo batetik doana.



San Juan gaina

**5 minutu** ibili ondoren, beste bidegurutze batera iritsiko gara. Hor bide nagusia hartuko dugu, eskuinetik Maceo iturrirantz doana. Dena den, nahi izanez gero, leku



Kate flotanteko errestabidea ("La Cadenilla")

horretan ezkerreko bidea har daiteke, eta gutxi gorabehera **10 minututan** San Juan gainera (669 m) iritsi. Kare harrizko mendi horretan ikuspegi zoragarria dago: Galdameseko mendiak eta Sopuerta ibarra ikus daitezke, bai eta Enkarterrietako, Kantabriako eta Burgoseko iparraldeko mendi asko ere.

Lehen adierazitako bidegurutzetik behera joko dugu harrizko bide batetik (eskuinetatik El Gallo mendira -616 m- doazen bi bide daude) eta **5 minututan** Maceo iturrira iritsiko gara. Iturrian harresi batzuk daude, kate flotatzaileko plano inklinatu baten aztarnak (funikular baten antzeko zerbitu). Plano inklinatua "La Cadenilla" izenez ezagutzen da, eta 1886an eraiki zen burdin mea El Saucotik (Galdames) Galdameseko trenaren 11. kilometrorra jaisteko. Maceo etxearen aztarnak ere ikus daitezke (hortik dator kio, hain zuzen, izena iturriari). Etxean bizi zenak garraioa behar bezala ibil zedin zaindu behar zuen.

Hortik, ezkerretatik, behera egingo dugu. Metro gutxitara (**3 minututan**) bidegurutze batera iritsiko gara, eta hor bi aukera ditugu **2**:



### Pico Ventana La Rasa menditik. Ezkerrean Las Cortes auzoa, eskuinean Petronor birfindegia eta Muskiz

- Eskuineko bidea hartu (kare hariz beteta dagoena). Hortik, jaitsiera malkarra egin ondoren, mendi lepo batera iritsiko gara, eta hortik zuzen jarraituz, Pico Ventana (527 m) gailurrera igo.
- Zuzen jarraitu. Pinudi bat zeharkatuko dugu eta La Rasa (612 m) mendira iritsi. Hortik, malda handiko bide estu batetik Pico Ventanaraino jaitsiko gara.

Bi ibilbideetan ere, **15 minutu** ibili ondoren, Pico Ventana edo Ventuñara iritsiko gara **3**. Bertan, Galdames eta Abando udalerririk banatzen dituen mugarria dago. Hor ere, La Rasan bezala, trintxera zaharren aztarnak daude. Ezkerretara, hurbilen Las Cortes auzoa (Abando) eta Montellano (Galdames) ikus daitezke, eta urrutirago Sopuerta. Pare pare Mello mendia (633 m) eta Muskiz daude, eta hor Petronor birfindegia nabarmentzen da. Eskuinetara Serantes mendia (448 m) eta Abando daude.

Gaina utzi, eta kare harizko bidea hartuko dugu. Hortik behera joko dugu, pinu eta haritz birlandaketen artean. Alboetara ateratzen diren bideak ez ditugu hartuko. **20 minutu** ibili ondoren, beste bidegurutze batera **4** iritsiko gara. Hor bide nagusia utzi eta ezkerretarantz doan belarrezko bidea hartuko dugu.

Gutxi gorabehera **15 minututan** beste bidegurutze batera **5** iritsiko gara. Hor eskuinetatik behera doan bidea hartuko dugu. Bidean burdin mea zatiekien egingo du topo, antzinako mea ustiapenen adierazle.

**10 minutu** ibili ondoren, bidearen eskuinean Siete Robleseko (Abando) atsedean lekua ikusiko dugu. Atsedean lekuak iturria du.

Zerbait aurrerago, zementuzko bide batera **6** iritsiko gara. Bidea ezkerretara Las Cortes auzora igotzen da, eta eskuinetara Sante-

lices auzoa (Muskiz) Zugaztietarekin lotzen duen basabidera iristen da, "Peñas Negras" Zentroaren ondotik igaro ondoren.

Mugarritik **6 5 minutu** joango gara gorantz, eta, ondoren, mimosaz jositako leku batetik jaitsiko gara. Ezkerretara dauden arroketa saiak egon ohi dira pausatuta. Mea hondakindegia zaharrak ere ikus daitezke.

**15 minututan** Las Cortes auzora iritsiko gara. Hor, abere ustiapen moderno baten ondoan, baserri batzuen eta dorretxe baten aztarnak daude. Ezkerretara, La Berena ibarra ikusten da (Villarias markesaren lurra izandakoak. Markes hori El Pobal burdinolaren jabeetako bat izan zen). Hor bertako baso bat dago, eta bertan azeriak, basurdeak, orkatzak eta hegazti harrapariak bizi dira.

Auzoa zeharkatu ondoren, eukalitu baso batetik doan belarrezko bidetik jaitsiko gara Sestaotik Galdamesera doan trenbide bide zaharrera **7** heldu arte (**25 minutu**). Trenbidea 1871 eta 1875 bitartean eraiki zuen *The Bilbao River and Cantabrian Railway Company Limited* konpainia ingelesak.

Trenbidetik ezkerretara jarraituz, eta metro gutxira, eskuinetatik jaisten den bidea hartuko dugu. Bidea eukalitu artetik doa, eta geroago pinudi batetik. Hortik jarraituz, bidegurutze batera iritsiko gara, eta hor ezkerreko bidea hartuko dugu (**10 minutu**). Oso hurbil beste bidegurutze bat dago, eta eskuineko bidea hartuko dugu. Gutxi gorabehera **5 minututan**, El Pobaleko zubira helduko gara. Zubia igaro eta Barbadun ibaiaren beste ertzeira iritsiko gara, eta hortik ezkerretara joko dugu, ibilbidearen amaierara, El Pobal burdinolara iristeko.



El Pobal burdinola (Muskiz)

**669 m.** Ibilbidean zehar gorabehera handia gainditu behar da. Hain zuzen, leku gorena San Juan mendia da (669 m), eta Barbadun ibaia, aldiz, itsas mailatik metro gutxitara dago.



Ibilbideak, San Juan mendi gainerako igoera kontuan izan gabe, **2 ordu eta 35 minutu** inguru irauten du.

El Pobaleko burdinolara azkarrago iristeko, Siete Robles atsedean lekuraino jaitsi daiteke. Horretarako, 5 kilometro ibili behar dira Peñas Negrasetik Santelicesetara doan basabidetik. Atsedean lekua igaro ondoren, ezkerretara doan zementuzko bidea hartu behar da. Zementuzko bide horretatik Las Cortes auzora igoko gara (hortik lehen adierazitako ibilbidea jarraituko da). Azken ibilbide horrek **ordu 1 eta 45 minutu** inguru irauten du.



Ibilbide erraza da, izan ere biderik gehiena maldan behera baita. Hala ere, birlandaketarako erabilitako bideak oso ugariak dira, eta horrek nahastea sor dezake. Zailtasun handienak Alta Galdameseko hegieren igoera eta San Juan gainerako igoera dira. Lainoa izanez gero, San Juan mendian kontuz ibili behar da, gailurrean pitzadura handiak baitaude, burdin mea "aire zabalean" erauztearen ondorioz. La Rasa eta Pico Ventana gailurretan ere kontuz ibili behar da amiltokiak baitaude.

**BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**  
Ibilbidea amaitu ondoren, egokiena Muskizeko San Julian auzora joatea da. Hor autobusa edo Meatzaldea eta Ezkerraldea Bilborekin lotzen dituen tren har daitezke. Horraino iristeko, El Pobal auzoan geratzen den Bizkaibus konpainiaren autobusa har daiteke, edo, bestela, 3 kilometro inguru ibili errepidetik.

**IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK**  
Bista panoramikoak. Paisaiaren interpretazioa. Industri arkeologia. Geologia. Flora eta fauna.